

## PREBENTZIO-NEURRIAK

### 1.- Antolaketa eta babes kolektiboko neurriak

#### Pertsonen arteko segurtasun neurriak:

- Pilaketak saihestuko dira eta plazan modu ordenatuan kokatuko da jendea.
- Plazan **1,5 metroko** segurtasun-distantzia mantentzeko moduan markatuko da lurra; pertsonen arteko distantzia mantentzeko, zutik egonda.

#### Plazaren edukiera eta erabilera:

Gehieneko edukiera, horiek erabiltzen dituzten pertsonen artean **1,5 metroko** segurtasun-distantzia mantentzea ahalbidetuko duena izango da.

#### Higiene-ekipamenduak:

Eskuak garbitzeko eta desinfektatzeko **gel hidroalkoholikoa** izango du plazak.

**Saihestu** egingo da **materiala bertaratuen artean partekatzea**.

### 2.- Banakako prebentzio-neurriak

#### Pertsona guztiek higiene pertsonaleko neurri zorrotzak hartu beharko dituzte:

- Musukoaren erabilpena **derrigorrezkoa** izango da
- **Saihestu begiak, sudurra eta ahoa** ukitzea.
- Eztul edo doministiku egitean, ondo estali ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta edo erabili eta botatzeko zapi batekin.

Uneoro mantendu beharko da pertsonen arteko **1,5 metroko segurtasun-distantzia**. Jardueraren bitartean, elkarrekin bizi direnek ez dute zertan distantzia hori mantendu haien artean, bai, ordea, besteekiko.

